

Nafar**k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko uztailak 23 / III. urtea / 85. zenbakia

Mahasti artean ardandegietara



Zaharrenak mende hasieran sortuak, Nafarroako ardo kooperatibek ekoizpen osoaren % 90 ezezik ardoa kupeletik zuzen-zuzenean erosteko aukera ere eskaintzen diote bertara hurbiltzen denari. Eskaintza hain oparoa izanda, ez da erraza aukeraren bat egitea, baina mahastien iparraldeko mugak udako egun bat merezi zuelakoan, Ziraukitik abiatu ginen, mahasti artean Le-dearaino. Ardo ona eta mer-

kea etxeratzeaz gain, arandegien egoeraz eta etorkizunaz solas egiteko parada izan genuen. Ardogileek diotenez, gero eta zailagoa gertatzen zaie ardoari irteera ematea. Ekoizpenaren eta salmentaren arteko aldea gutxitzeko nahitaezkoa da komertzializazioa indartzea, baina hori apustu gogorra da arandegi txiki eta zaharkituentzat. Gogorregia bakarrik egiteko, bideragarria batuz gero.

Goian, Carlos Buzunariz Artaxonako ardogilea. Ezkerrean, mahastiak eta San Martin Unx atzean. Behean, bertako ardandegia.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'Garaikideko Pintura' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan uztailearen 29a arte. Bertan, hamahiru artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak. Amaitu eta gero, Gares, Tafalla eta Tuterako kultur etxetara eramango dute erakusketa ibiltari hau.

ZINEMA



'Eduardo Manostijeras' izeneko pelikula eskainiko dute datorren asteazkenean, uztaileak 28, Larraun-Lekunberriko udalak. 'Zinema kalean' zikloaren barruan, Lekunberriko pilotalekuaren odoan dagoen plazan izango da, gaueko hamarretan hasita.

'Ze suertea...ahaideak iritsi dira' izenburuko pelikula botako dute asteburu honetan Bidankoze eta Esprontzeda herrietan, Nafarroako Gobernuak udarako antolatatu duen zikloaren barruan. Bihar larunbata, hilak 24, Bidankozen izanen da, gaueko hamarretan, eta etzi, igandean, Esprontzedan botako dute, ordu berean.

ANTZERKIA



Bajo la arena izeneko antzerki taldeak 'El pais de Hamerlin' tituloko obra eskainiko du asteburu honetan Bidankoze eta Esprontzeda herrietan, Nafarroako Gobernuak udarako antolatatu duen zikloaren barruan. Bihar, hilak 24, Esprontzedan izango da, arratsaldeko zazpi terdietan. Etzi, berriz, Bidankozen botako dute ordu berean.

Trokolo antzerki taldeak obra bat eskainiko du datorren astean Luzaide eta Atarrabian. Gobernuko Hizkuntz Politika sailak antolatuta, astelehenean, uztaileak 26, Luzaideko herriko plazan arituko da, 'Zalapartaka' antzezlanaz plazaratuz goizeko 11.30etan. Asteazkenean, berriz, Atarrabiako udal igerilekuan antzeztuko du obra bera, arratsaldeko 20.30etan.

BESTELAKOAK


Baztandarren Biltzarrean egindako zozketan 6460 zenbakia izan da saritua. Jakina denez, Baztango hainbat dendek eta elkartek emandako produktuez osatutako orga erraldoia da saria. Sariduna bi hilabeteko epean agertzen ez bada, 7225 zenbakiduna izango da saritua. Hau ere hamabost egunetan agertuko ez balitz, 1300 zenbakiaren jabeak jasoko du orga.

Basaburuan barna

Asteburu honetarako ibilbide lasaia aukeratu dugu, mendi alturik gabekoa, oinez oso polita izango dena. Zehazki, Basaburuko herri batzuk ezagutzeko bikaina izan daiteke. Orokietatik atera eta Igoa, Arraras eta Aizarotz herriak zeharkatuz, bertako baso eta zelaia begibistan izango ditugu.

Larraun, Ultzama, Imotz eta Leitza aranen artean dago Basaburua, leku zoragarria benetan. Guztira zortzi herri badira ere, aipatutako lau hauek ezagutuko ditugu. Orokieta herriko auzo batetik hasiko gara, Burdinola (Ferreria) deitutakoa. Herritik gertu, etxe batzuk badaude oraindik, jende asko bizi ez bada ere. Handik, iparraldeko bidea hartuz, Igoarantz abiatuko gara, pagadi ederrak zeharkatuz. BAserriak ere badaude tartean, abere eta bartzatza ugari baitaude.

Igoara heltzeko aldapa igo behar da, goikaldean baitago. Etxe handiak, harrizkoak, dira gehienak, eta eliza, herri gehienetan ez bezala, oso txikia da hangoa, baseliza dirudi. Herriko plaza, taberna, eta pi-



lotalekua, noski teilaturik gabe, ezagutu ondoren, bi norabide har daitezke: Arraras herriarantz etao Aizarotzera.

Biak egitea da hoberena. Lehendabizi, iparraldera jarraitu eta Arraras ezagutuko dugu, herri txikia eta polita. Ondoren, berriro Igoara itzuli eta handik Aizarotz aldera joko dugu, bertako pinudi eta ariztiak gurutzatuz. Bidean, Artius ibaia zeharkatu beharko dugu, arazorik gabe gaine-

ra. Sakan handi bat dago hor tartean, ikusteko bikaina suertatuko dena, ondotik, gainera, pista bat pasatzen da, eta hortik abiatuko gara Orokieta aldera. Beste atsedeen bat har dezakegu han, bertako ostatuan, eta ondoren herria eta bere auzoa bitartean dagoen bidea burutuko dugu, ibilbidea amaituz. Bidean, Gorostieta ibaiaren ondotik pasatuko gara. Osotara, 15 kilometroko bidea da, lasaia eta polita oso.

ASTEKO PERTSONAIK



Kepa Altonaga
UEUko zuzendaria



Iñigo Larrainzar
Futbolaria



Adolfo Araiz
Parlamentaria

Pasa den astelehenean hasi zen Iruñean Udako Euskal Unibertsitateko aurtengo edizioa, orain dela 17 urte Iruñean egiten dena. Osotara, hau da UEUren XXI. urteurrena. Bi astetan zehar 21 ikastaro ezberdin eskaintzen dira, mota guztietakoak, bost sailetan banaturik: artea eta komunikazioa, giza eta gizarte zientziak, hizkuntzalaritza, natur zientziak eta osasuna, zientziak eta teknikak. Hasiera batean 23 ikastaro ziren, baina filosofia eta pedagogia suspenditu egin dituzte. Kepa Altonaga zuzendariak eman zion hasiera aurtengo saioari, orain arte egindako lana azpimarratuz. Udako ikastaroak ezezik, urte guztian zehar ekitaldi ezberdinak egiten dituztela garbi utzi nahi izan zuen, Bilbo, Arrasate, Baiona, Eibar eta Gasteizen, hain zuzen.

Azken egun hauetan gauza asko entzun badira ere, Iñigo Larrainzar Atleticeko jokalaria izanen da heldu den denboraldian. Bilboko taldeak 200 milioi orainduko ditu jokalarion truke, eta lau denboraldi pasatuko ditu Iruñeko gazte honek Bizkaiko hiriburuan. Notizia hau atera zenean, jendeak denetarik pentsatu zuen, batzuk, Osasunari ez zitzaioala holako jokalaririk saltzea zioten, eta beste batzuk, ordea, diru horrekin kanpoko norbait eros daitezkeela adierazi zuten. Baina orduan, kontratuaren arazoa zegoen, eta taleak ezin zuten jokalaria saldu heldu den denboraldia amaitu arte. Orain badirudi gauzak ongi joango direla eta Iñigo Larrainzarrek Iruñetik alde egingo duela.

Intsumisioaren gaia aztertu da aste honetan Nafarroako Parlamentuan, Adolfo Araiz HBkoa eta Fermin Ziaurriz EAKo parlamentariaren eskaerei esker. Araiz izan zen eskaera lehen egin zuenak, uztailearen hasieran Parlamentuko Giza Eskubide Batzordea biltzea eskatu baitzuen, Nafarroan intsumisioaren egoera kezkarria delako. Ondoren, EAKoak ere berdin egin zuten, eta Legebiltzarreko Batzorde Iraunkorrak eskaera onartzea erabaki zuen. Hau dela eta, Giza Eskubide Batzordea bildu zen, 80 orrialdeko txosten bat tratatzeko. Txosten hau Parlamentuan egin dute, beste eskaera bat betetzeko. Aipatutako idazki honetan intsumisioaren datuak agertzen dira, epaketak, kartzelatuak, eta abar.

AHAZTU GABE!

SU TA GAR izeneko musika taldeak lan asko izanen du asteburu honetan Nafarroan, gaur ostirala, uztaileak 23, eta bihar larunbata, uztaileak 24, kontzertu bana eskainiko baitu. Lehendabizikoa Lizarran izango da, herriko zezen plazan, eta han, Piskerra erriberako taldearekin arituko da. Kontzertua gaueko hamarretan hasiko da.

Hurrengo egunean, hau da, bihar, Olaztin joko dute, Matraka Altsasuko neskak eta herri bereko Jessie James Band taldearekin batera. Rock jaialdi hau Olaztiko poligono industrialean izanen da. Sarrerak lortu nahi dutenek, 700 pezetatan salgai izanen dituzte taberna hauetan: Olaztiko 'Biriki', Altsasuko 'Lurrarzi', 'Biltoki' eta 'Arkangoa' eta Lakuntzako 'Sorginak'. Bestela, leku hauetara hurbiltzen ez denak han bertan, takillan, eros dezake, hori bai, 800 pezetatan.

Nafarroa Oinez 93 taldeak antolatatu du kontzertu hau, azkeneko hilabetetan egin duen antzera. Erakusketak, musika kontzertuak, kirolak, eta bestelako ekitaldi batzuk antolatatu dituzte.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'TXURIE TA BELTZ' izeneko

irratsaioa izanen dugu bihar larunbata, 13.00ean, Radio Nazionean. Larunbatero, Fermin Erbitik zuzenduta, euskarazko saioa burutzen du, eta larunbatetan bakarrik, aste egunetan ere, arratsaleko zortzietan, ordu bete aritzen da elkarrizketa, albisteak, musika, astebururako prebisioak eta antzekoak eskainiz.

Gares

Banderak prest

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Banderak jadanik garbi-garbiak eta ongi lisatuak daude, eta guztia prest dago igandeko banderen agurrerako. Bihar eguerdiko ordu batan txupinazoak Udaletxe plazan eztanda egingen du, eta Garesen Santiago jaiak hasiko dira. Gutxi gora-behera 24 ordu beranduago jaietako unerik bereziena ailegatuko da, Banderaren Agurra. Ehundaka urte pasatu dira ohitura sortu zenetik, eta egun ez dago batere argi agurraren bitartez norik eskatzen dion barkamena nori. Kofradietakoek diotenez agurra horren bitartez barkamena eskatzen du urtean egindako gehiegikeriengatik. Udaletxeakoek diotenez, kofradiek Udalarari zor dioten errespetua nabarmentzen dute agurraren bitartez. Ohituraren esanahiaren inguruan adostasunik ez dago, baina bai, ordea, ohituraren formari dagokionean. Santiago eguneko meza eta prozesioaren ostean Mena plazarentz abiatzen dira zinegotziak, kofradeak eta herriko Musika Banda. Horra ailegatu bezain laister, eta bandak Bravaneko Cadeteak martxa jotzen duen bitartean, kofradietako banderadunek lehen agurra egi-



Bihar eguerdian hasiko dira Garesen Santiago jaiak.

ten dute, udaleko banderadunak agur horri erantzuten dio, eta gero guztiek elkar agurtzen dute. Bi minututan guztia amaitzen da, baina Gareskoentzat une bereziberezia da hori.

Banderaren agurra, dudarik gabe, jaietako unerik zirraragarriena da, baina egon badago egunero beste une berezi bat. Gaueko ha-

marretan eta Santiago jaiak irauten duten bitartean Mena plazak dantzazaleek gainezka egiten du gaueko hamarrak aldera. Guztiek Garesko Jota dantzatzuten dute, eta jarraian Larraindantza. Aurten hamar urte betetzen dira dantza egiten hasi zenetik, eta ospatzeko Garesko Gaiteroek ez ezik, Artaxonako Musika Bandak

egunero Larraindantza eta Garesko jaiak joko dute. Aurten maila goreneko su artifizialak gozatzeko aukera emanen du Garesko udalak; izan ere, Caballe Valentziako enpresaren esku utzi du Santiago Eguneko suen antolakuntza. Gareskoek eta UEUko ikasle eta irakasleek jaiak goza dezatela!



Erroibarrak bere eguna ospatu zuen joan den igandean. Baztandarren Biltzarrak gehien arreta deitu zuen egun hartan, eta egunkarietako orrialdeak bete zituen, Erroibarko Eguna zokoratuz, baina bailara horretako seme-alaben ospazinunak aipamena merezi du gure txoko honetan. Txistularien dianak, meza, artisau azoka, mus eta herri-kirol txapelketak, pailazoak, Irunberriko txaranga, Barañaingo Harizti dantza taldea, zikiroa eta Zaraitzu orkestra eta eguzkiak egun dibertigarria gozatzeko aukera eskaini zieten Sorogaingo zelaietan bildu ziren ehundaka lagunei.

Tuteran Erriberako Eguna ospatu zurten egun berean. Esan bezala, Baztandarren Biltzarrak itzala egin zien joan den igandean Nafarroan ospatu ziren gainontzeko jaiak, baina hala eta guztiz ere arrakastatsua izan zen oso lehenengo Erribera Eguna. Ospakizunak ostiralean hasi baziren ere, igandean ospatu zen jai egun nagusia. Igandeko ospakizunei dantza taldeek eta joteroek eman zioten hasiera pilotalekuan, pilotalekuan eta Foru plazan. Inguruko artisauak ere jaiaren parte hartu zuten erakusketa baten bitartez. Entzierroa eta bazkari herrikoiak eguna biribiltzen lagundu zuten.

Berako Kultur Etxean herriko 74 haurrek eginiko keramika lanak ikusgai izan ziren joan den igandean. Urtean zehar asteazken arratsaldero Gloria Garrido artisau beratarren aholkuean buztina lantzen aritu dira haurrak, eta erakusketa urtean zehar ikasitaoaren ondorioa izan da.

FESTAZ. FESTA.

GARES

Uztailak 24, larunbata:

13.00 Txupinazoa. Jarraian Garesko Gaiteroak eta Garesko Musika Bandarekin kale jira.
18.00 Bezpera-meza.
19.30 Akordeoi kontzertua.
20.30 Ross Aizpen orkestrarekin dantzaldia.
21.00 Salbea.
22.00 Larraindantza, Garesko Jota eta zezensuzkoa.
24.00 Garesko Musika Bandarekin kalejira.

Uztailak 25, igandea:

06.00 Aurora.
09.00 Dianak Garesko Gaiteroak eta Garesko Musika Bandarekin.
11.00 Meza eta prozesioa Santiagoren omenez. Jarraian, banderen agurra eta herriko dantza taldearen emanaldia.
17.30 Haurrendako Jaialdia.
19.00 Jotak.
20.30 Dantzaldia.
22.00 Larraindantza, Garesko Jota eta zezensuzkoa.
23.00 Su artifizialak.
01.00 Dantzaldia.

IZABA

Uztailak 24, larunbata:

12.00 Txupinazoa: Zurrakapotea eta gozokiak.
18.30 Herri kirolak. Sokatira: Lokomotiv Esteaua taldearen kontra.
20.30 Dantzaldia.
01.00 Dantzaldia.
Uztailak 25, igandea:



12.30 Erraldoiak, kilikiak eta gaiteroak.

13.00 Kontzertua.

18.30 Agoizko dantzariak. Jarraian azkari herrikoia: Urdaiazpikoa, gazta eta ardoa.

20.30 Dantzaldia.

22.30 Zezensuzkoa.

01.00 Dantzaldia.

SAN ADRIAN

Uztailak 24, larunbata

12.00 Txupinazoa.

19.30 Peñen topaketa: jotak eta txistulariak.

21.30 Dantza herrikoiak.

22.00 Dantzaldia.

24.00 Dantzaldia.

Uztailak 25, igandea

06.30 Dianak.

09.00 Entzierroa.

09.30 Gosaria.

12.00 Meza.

17.30 Entzierroa.

19.00 Zezenketa.

19.30 Haurrendako jokoak.

21.00 Peñen ateraldia.

21.30 Haurrendako dantzaldia.

22.00 Afaria.

23.00 Zezensuzkoa.

23.30 Musika bandaren kontzertua.

24.00 Su artifizialak.

24.30 Dantzaldia.

LUZAIDE

Uztailak 24, larunbata:

11.00 Tiro txapelketa herrikoentzat.

12.00 Kontzertua herriko plazan.

16.45 Profesional mailako pilota partidua Jai Eder pilotalekuan: Ladutxe-Arretxe Titin III-Belokiren kontra eta Satrustegi-Armendariz Iribarren-Irigoienek kontra.

24.00 Herri Kirolak Jai Eder pilotalekuan. 24.30 Ekus orkestrarekin dantzaldia.

Uztailak 25, igandea:

11.00 Meza nagusia.

11.00 Tiro txapelketa herriko eta kanpotarrentzat.

12.30 Iruñea taldearen dantzari eta fanfarrearen emanaldia.

17.00 Futbito.

18.00 Vega aizpen jotak herriko plazan. Jarraian Txomin eta Perutxiki pailazoak.

22.00 Zezensuzkoa. Jarraian Ekus orkestrarekin dantzaldia.

24.00 Su artifizialak Valentziako Caballe etxearen eskutik. Jarraian dantzaldia Ekus orkestrarekin.



Tafallako udalak 12,5 milioi pezeta besterik ez ditu jasoko Nafarroako Gobernuaren eskutik herriko azpiegiturak hobetzeko, udalak 1.500 milioi eskatu bazituen ere. Udal bilkurak aho batez onartu du Nafarroako Gobernuaren jarreraren kontrako akordioa onartu zuen. Akordioan datorren hiru urtekoan egin beharreko azpiegitura lanak finkatzen dira, eta Alde Zaharraren berregituraketari lehentasuna ematen zaio. Udalak aldarrikatzen duenez, Tafallako herritarrek ez ezik, inguruko herrietakoek ere Tafallas hainbat zerbitzu gozatzeko dute, eta hori dela eta diru gehiago jaso behar luke talde aldarrikatzen dute zinegotziek.

U da giroak horretarako beta eskaintzen duela eta, Ziraukitik abiatu ginen, Gares, Artaxona, Tafalla, San Martin Unx, Uxue, Eslaba eta Oibarretik barna, Ledearaino. Laurogei kilometroko Xahatobeo partikularra, labore eta mahastien artean, ardoaren mugetan. Hortik behera, Erriberarantz, nahi adina ardandegi aurkitzen baita.

Zirauki-Ledea ardoaren mugetan


A. UNANUE / IRUNEA

Ardoaren muga gaur egun, XIX. menderarte mendialdean eta Iruiñerrian ere mahastiak ikus zitezkeen eta. Orain, berriz, erdialdetik Erriberarantz jo behar da ardandegiak aurkitzeko. Ez dira falta, hala ere. Nafarroan 50 ardo kooperatiba daude, harat-honat barreiaturik, tokian tokiko mahatsa bildu, ardoa bertan egin eta dendetan baino merkeago saltzen dutenak.

Ziraukitik —adi: astelhehene-tan itxita egoten da kooperatiba—, Gares aldera abiatu ginen. Ezkerraldera utzi genuen Artazu —bertako ardandegiak igande-

botilatan saltzen hasi dira, 'El Txori' izenarekin. Hilean 11.000 litro inguru saltzen dute eta, Maria Antonia Villodas bertako andreak dioenez, azken bi urteotan salmentek behera egin dute nabarmen. Horregatik hasi dira berriz, ea errazago saltzen den. Ardandegi ia guztietan bezala, ardoa eramateko garrafak eros daitezke bertan, bost edo hamar litrokoak. Astearte goizetan bakarrik ixten dute.

botilatan saltzen hasi dira, 'El Txori' izenarekin. Hilean 11.000 litro inguru saltzen dute eta, Maria Antonia Villodas bertako andreak dioenez, azken bi urteotan salmentek behera egin dute nabarmen. Horregatik hasi dira berriz, ea errazago saltzen den. Ardandegi ia guztietan bezala, ardoa eramateko garrafak eros daitezke bertan, bost edo hamar litrokoak. Astearte goizetan bakarrik ixten dute.



Izarbeibarren tradizio handia du mahastigintzak. Jendeak kontatzen duenez, bertako elizak eraikitzeko behar zuten porlana egiteko ardoa erabili zuten, uraren partez, garai hartan soberan zuten eta.

Artaxonara iristeko buelta hartu behar da, Tafallarako norabidean. Laboreek eta mahastiek hori-berdez margotzen dute paisaia. Laborea bilduta dago jada eta mahastiak, fruiturik gabe oraindik, isilik ari dira lanean, lotura garaia da eta. Mahatsaren lorea fruitu bilakatzekeo prozesua da lotura, eguraldi egokia eskatzen duena: gora-behera handirik gabeko temperatura batetik, eta bero handirik ez bestetik, lotura poliki-poliki egin dadin. Lotura nolakoa, halakoa izango da uzta, lotura eskasa izanez gero ale gabeko mordoak eta mahats gutxi-ko ardantze asko agertuko baitira udazkenean.

Bidean Mendigorria pasatuko dugu. Hemen ere bazen ardo kooperatiba lehen, baina duela hiru urte ardandegi utzi zuten eta orain Mañerua eramaten dute mahatsa. Artaxonako sarreran Martzillarantz hartu behar da, eta gasolindegia pasatu bezain laster ikusten da ardo kooperatiba. Ar-

taxonaren ere gorria (80 pezeta) eta beltza (90) daude aukeran. Sanferminetarako gorri berezia zabaldu zuten, normalean pixka bat garestiago saltzen dutena, baina aurten ez dute prezioa igo. «Gaizki, oso gaizki dago hau», dio Carlos Buzunarizek, «eta horregatik erabaki genuen prezio berean uztea». Irailean berrituko zabalduko dute berezia, orduan azaltzen direlako erosle gehienak.

Artaxonako ardandegiak, inguruko guztietan bezala, garmatza —Nafarroan nagusi, ardo gorria egiteko— eta goizmahatsa —beltza— erabiltzen dute. Bada hirugarren mahats mota, biura, txuria egiteko edota nahasteko erabiltzen dutena. Nafarroan gorriak izan du betidanik izena, baina azkenaldian beltza indartzeko joera nabari da. Ardo gorria gazte saltzen da; beltzak, berriz, urtetan gordetzeko eta erreserba onak egiteko aukera eskaintzen du. Hori dela eta, Nafarroan ere

mahatsondo frantsesak (Cabernet Sauvignon gehienbat) landatzen hasiak dira. Bestelako al-daketak ere sartu dira: betiko mahatsondoan alboan, enparatuak agertu dira, euskarrien la-guntzaz altura gehiago hartzen dutenak. Horrela produkzio handiagoa lortzen dute eta errazago biltzen da mahatsa.

Tafallakoa Nafarroako ardo kooperatiba zaharretakoa da, 1917koa hain zuzen. Aurren-aurrenekoa Erriberrikoa izan zen, baina azkenaldian beltza indartzeko apezak 1911. urtean sortua. Tafallan bertan 80 pezetan saltzen dituzte gorria eta beltza, baina 'Viña Nava' izenpean botilatan saltzen dutena bultzatu nahi dute,

Batzeko premia

A. U. / IRUNEA

Kooperatibek produkzioaren aldetik izugarriko garrantzia izan arren —horietatik ateratzen da Nafarroako ardo ekoizpenaren % 88—, azken urteotan maila-dan behera doaz eta horretatik biziz direnak kezkatu agertzen dira. Jendeak gero eta ardo gutxiago edaten omen du (urtean 32 litro buruko) eta eskaria eskaintzaren azpitik geratu da. 1992ko azaroan Nafarroako ardo kooperatibek oraindik saltzeko zeuzkaten aurreko uzteko 16.000 litro, beren produkzioaren % 40 alegia.

Ardandegiei Europatik datozen haizeei egokitzeko garaia heldu zaie eta kooperatibentzat bide bakarra batzearena da. Nekazaritza Kooperatiben Batasunak (UCAN) iragan otsailan egin zuen mintegian honen alde azaldu zen, baina Jose Maria Lukin erakundeko lehendakariak berak ohartarazi zuenez, ardoaren sektorean traba franko dago. Batetik, ardandegiak barreiaturik eta zaharkitua daudela eta, bestetik, kooperatiba askok besteekin biltzeari mesfidantzaz begi-

daindu arren, kooperatibek 45 pezeta baino ez dute jasotzen. Bestalde, jatorri izendapena kalitatearen adierazgarri izan daiteke, baina ez du merkaturako bidea leuntzen, ezin baita Nafarroatik kanpo komertzializatzeko saldu. Kanpora atera ahal izateko jatorri izendapenari uko egin behar zaio eta hori egiten dute zenbait kooperatibak beren ekoizpenaren zati batekin.

Ardandegiei Europatik datozen haizeei egokitzeko garaia heldu zaie eta kooperatibentzat bide bakarra batzearena da. Nekazaritza Kooperatiben Batasunak (UCAN) iragan otsailan egin zuen mintegian honen alde azaldu zen, baina Jose Maria Lukin erakundeko lehendakariak berak ohartarazi zuenez, ardoaren sektorean traba franko dago. Batetik, ardandegiak barreiaturik eta zaharkitua daudela eta, bestetik, kooperatiba askok besteekin biltzeari mesfidantzaz begi-

ratzen diotela. UCANeko Patxi-ren esanetan, «oso sektore berezia da. Nork bere herrian nahi du kooperatiba, horretan ari den jendeak hobereña dela uste baitu». Honi inbertsio handiak egin behar gehitzen bazaio, erraz ulertzen da mahastizain asko temati azaltzea fusioez hitz egiterakoan.

Hala ere, batzuek eman dute urrats hori —San Martin Unxeko bi kooperatibak duela sei urte batu ziren— eta beste asko bidean daude. UCAN Nafarroa osorako salmenta zentro bat sortzeko ahal-eginetan dabil, komertzializazio kooperatiben esku egon dadin. Bost bilera egin dituzte eta batzorde bat arautegiaren zirriborroa prestatzen ari da. Gero ikusi beharko da zenbat kooperatiba dauden sartzeko prest.

San Adrian eta Sartagudan. Gorriak ospe gehiago izan arren, beltzaren produkzioa pixka bat handiagoa da oraindik.

San Martin Unxeko kooperatiba atek zabalik ditu aste gutxian zehar; Uxuen, berriz, larunbat arratsaldeetan bakarrik zabalitzen dute, baina paisaia ikusteagatik bakarrik ere merezi du errepidetik zortzi kilometro desbideratzea. Eslaban ibilbideko ardorik merkeena dago: 75 pezeta gorria eta 70 beltza. Oibar herrira iritsi eta ezkerretara dago ardo kooperatiba. Sebastian Vicente bertako ardazaina kezu agertzen da, azken urteotan asko kostatzen baitzaie ardoari itere-raren bat ematea eta kanpoan saldu ahal izateko uko egin diote Nafarroa jatorri izenari. Ledean ere produkzioa gutxi dute ekoizpen guztia saltzeko zailtasunen ondorioz. Lehen 70 pezeta gustura daude emaitzekin. Iaz 5,5 milioi kiloko uzta izan zuten. Nafarroa osoan batez-beste 60.000.000 litro ardo ekoizten dute urtean, gehiena Nafarroa jatorri izendapenean. Baina badira 4.000 mahasti hektarea Erri-xako izendapenarekin, Biana, Mendabia, Azagra, Andosilla,

lekuetan. Aldaketa laborearen-agarriagoa zen urteetan egin zen eta orain, zenbaitek mahastigintzara itzuli nahi badute ere, Europako Komunitatearen arauen ondorioz ia ezinezkoa da mahastiak landatzeko baimena lortzea. XVII. mendean Foru Diputazioak berak debekatu zuen mahasti gehiago jartzea, labore eskasiaren eraginez ogiaren prezioa izugarri igo zelako. San Martin Unxeko kooperatiba, ardo gorria eta beltza ezezik txuria ere eskaintzen dute, 12 botilako kaxetan nahi izanez gero. Duela sei urte herriko bi kooperatibek batzea erabaki zuten eta gustura daude emaitzekin. Iaz 5,5 milioi kiloko uzta izan zuten. Nafarroa osoan batez-beste 60.000.000 litro ardo ekoizten dute urtean, gehiena Nafarroa jatorri izendapenean. Baina badira 4.000 mahasti hektarea Erri-xako izendapenarekin, Biana, Mendabia, Azagra, Andosilla,

Herri martintzarra

● Ez da Aingeru Epaltza komunikabideetan txitean-pitean azaltzen direnetakoa, baina entzun —duela gutxi ETBn— edo irakurri diogun bakanan pertsonaia kritikiko bat antzeman izan dugu esandako eta idatzitakoaren atzean, eta hau, inkomformismo oro bezala, freskagarria bada edozein herritako kultur iharduerarentzat, are gehiago txikia bezain barea dirudien gurearentzat.

Kuriosoa da benetan ikustea nola euskal kulturaren norabideari —hizkuntza eta literaturaren norabidei bereziki— frankotiradore antzean tiroka aritzen diren gehienak nafarrak diren. Badirudi zisma moduko bat gertatua dela ekialde eta mendebaldearen artean hizkuntza eta literatura parametro hauetan. 'Enfant terrible' gordeleku bilakatu zaigu Nafarroa aspaldion.

Jarrera kritikoa hauek nola-bait zuritze aldera esan dezagun egia dela euskalduntasunaren esparruan estilo berdintzaile bat sortu dela, eta honen esportazioak, zenbait idazle eta pentsalariren baieztapen kritikoak lekuko, porrot egin duela ekialdera zabaltzean. Nola ulertu, bestela, idazle jendeak euskara estandarri ekialde gertuan egiten dion muzina mendebalde urrunean desgogara bai baina azken batean egin dagoien onspenaren aldean? Hara soziolinguistazako bakka, gu, den-dinari heldu ezinik, dagokigunaz baino ez baikara arituko.

Gorago esan bezala, kezkaz ikusten ditu Aingeru Epaltzak Euskalduntasunak aspaldion bere egin dituen norabide eta manerak. Fondoa —euskalduntasuna definitzen omen duen euskara estandar ezaguna— zein forma —euskalduntasuna bera saldu eta esportatzeko modua— maiz izan dira bere kezken zuriak. «Ez dago eredu bakarra» edo «badago beste biderik» entzun izan diogu inoiz, jarrera kritikoa horren harian.

Hartara, eredu estandarra bera ezezik, euskalduntasunaren eitea, trazak, estiloa bera ere izan dira kritikagai ekialde urrun-gertu honetan. Beste idazle bati —nafarra era bai, jakina— irakurri diot Nafarroan —toki urbanotan bereziki— euskalduna izateko askotxo eskatzen dela, kario dagoela alegia euskararen mundura sartzeko, ze, Euskal Herriko beste bazterretan ez bezala, mintzaira berriaren bereganatzearekin batera ideologiak, bizimoduak eta, zenbait kasutan, iazeraerak daketa bat ere eskatzen baita hizkuntza kolektibitate berrian

oso-osorik onartua izateko. Nik uste dut Aingeru Epaltzak, besteak beste, bi sentipen edo jarrera hauek —batua estandarren aurreko alter-natibaren beharra bateko eta, besteko, gurean nagusi den euskal estilo 'marjinal' hori maiseatu nahia— hasiera-hasi-eratik erabili dituela buruan 'Ur uherrak' nobelaren erai-kihurtu. Bi asmo horiek gau-zatzeko herria eta hiria erabili ditu, hurrenez hurren, trama-ren kokaleku eta giro gisa. Lehenengoaren kasuan nahitaezkoa zuen herriaren hauta ekialdeko eredu hori modu erreal eta sineskor batez erabiltzeko eta, bigarren kasuan, rockeroen agerpenak —Joxi-biren pertsonaia gurean Zaki-lixut bezalako arketipo bat da— beta ematen zuten estilo 'alternatibo' eta automarjina-tu hori gogotik astintzeko.

Lehenengoan, artikuluxka batean, 'Ur uherrak' Tom Sharperen nobelekin parekatzen zuen beste idazle ezagun batek. Egia da, beste gauzen artean, liburu hau umorezkoa dela, eta noiz edo noiz, ager-tzen diren pasarte esperpenti-koak medio, barre algarak probokatu ere probokatzin di-tuela —azken kontzertuaren pasadizoak antologikoa da—. Izan ere, euskaldunen portae-ra politiko eta sozialaren gai-neko opera bufatza har dai-tekeen honetan ederki dan-tzatzen ditu Epaltzak euskal-dunon keria ageritzeko zein ezkutuzkoak —alderdikeria, berdinkeria, arrazakeria, go-ranahikeria, modernoke-ria...—.

Guztiarekin esan genezake katarsi moduko ariketa baten aurrean gaudela. Gure ingur-uan, aterpe zein kartzela —ikuilu— dugun euskal ko-lektibitate honetan, badago astintze bat merezi duenik eta, gauden egoeran egonagatik —oraino, ixteke dauzkagun zaurien zomea dela eta, zen-bait aspektu ez dira nobela-gai—, zer egokiagoa ironia baino guzti horri luma bihu-riaz erasotzeko?

Aingeru Epaltzaren azken nobela hau izugarri gustatu zait ipilpu baten aurrean —propio distorsionatua— jarri eta gure gaitz askoren be-rri modu umoretsu eta ironi-koaz jakinarazi digulako. Nork esaten zuen euskal ida-izleek ihes egiten ziotela errea-litatearekin? Hurrengo pausoa umorea superatu eta gure errealitatearen ustela bestelako klabe 'serioagoetan' kontatzea izango da, bai-na oraino —tamalez—, luze itxaron beharko dugulakoan, goza gaitzen 'Ur uherrak' zoragarri honetaz.

KULTUR ZIKLOA 93

BIDEO EMANALDIAK Ekainaren 26tik Irailaren 4era

- Excalibur: Arano eta Areso
- Indiana Jones eta azken gurutzada: Areso eta Gaintza
- Willow: Arano, Gorriri eta Suarbe
- Arka galduaren bila: Auza
- Arrosaren izena: Goizueta
- Behiak: Goizueta
- Río Bravo: Eraso, Betelu eta Goizueta
- Wanda izeneko arraina: Areso eta Astitz
- Jeremiah Johnson: Itsaso
- Robin Hood, lapurren printzea: Intza

LEITZALDEA LARRAUNALDEA EIBARREAN EUSKARA ZERBITZUAK Nafarroako Gobernu



Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketako 8. jardunaldiko partida, 1992ko azaroaren 28an. C. Saenz (Lizarrako Alekhine) J. Fernandez Hierroren (Iruñeko Runa 'A') kontra. 1.d4,zf6; 2.c4,c5; 3.d5,b5. Beldurrik gabe, peoia eskaintzen dio, erdigunea kontrolatzeko. 4.b5,a6; 5.a6, Aa6; 6.g3,g6; 7. Ag2,d6. Beharrezkoa, posizioa menpean izateko. 8. Zh3,Ag7; 9.0-0,0-0; 10.Zc3, bZ-dT; 11.. Ge1,Ga7; 12.Gb1,Dc7; 13. Ae3, Zg4; 14.Ad2,Gb8; 15.f4,Zb6; 16.b3, Ac8. Txurien esparruan sartu behar dute hala edo nola, nahiz eta gaztelu bat eman, beren piezak erasokorrak baitira (ikus koadroa). 17.Zb5,Dd7; 18.Za7, Da7; 19.e3, Da2; 20.Dc1, Za4; 21. Ae4. Beltzen 'c4' ebitatzeko. 21....Zc3; 22.Dc2, Dc2; 23.Ac2, Zb1; 24.Gb1,Zf6; 25. Zg5,Zd5; 26. Ef2, Zb4; 27.Ad4,h6; 28.Ab4. 'Zf3' eginez gero, 'f5' jokaldiaz alfila eroriko zen. 28.... Gb4. Ez dago pieza salbaterik. Amore eman zuten txuriek.

Bertsoak

Zure neskalagunak beste neska batekin ikusi zaitu. Gaintzakoak.

Nik maite ditut zure laztan ta musua oraindik zure onduan nago erosua lasai gure artean ez da piztu sua neska hura zen eta nere lengusua

Ni neskakin ikusi ta jarri erreta nik asko maite zaitut ez beztu kopeta gainera lengusua zertarako tenta ni baino zortzi urte gazteago zen eta

Oskar Estanga

Jenero Xumekoak

Angelita

Angelita hil zorian dago. Penatan ito dio bihotza amorioak. Bere inude zaharra otoitz egiten ari da, erreka Andreari. 'Zeruan izarra, errekaldean lizarra'. Baina ez da oroitzen haurtzaroko konjuro hartaz. Alferrik da ahalegina, erreka Andreari ez zaio axolarik kristauaten bitzita.

JEREMIAS ERRO

Zoraturik zaudete!

IGOR ARROYO


Behin joana naiz herri grisera. Hangoek 'hiria' deitzen diote. Behin joan naiz eta ez naiz sekula ere joango berriro. Hango jendea zoraturik dago, bere gizarteak ez du zentzurik. Ea zergaitik joan nintzen? Beno, kontatuko dizuet. Asko entzuna nuen hiriari buruz eta irrikan nengoen hara joateko, ea egia zen kontatzen zutena.

Kuatermok-ek eraman ninduen bere motordun gurdi zaharrean guse beltz bat zirudien harrizko bide luze batetik. Hara helterakoan izugarri izutu nintzen: erortzeaz zirudien harrizko mendi altu eta estuez beterik zegoen hiriak eta gero esan zidaten erai-kuntzak zirela eta han etxe asko zeudela. Ez nekien nora joan harri masa hura nere buru gainean zegoelarik. Sinesgaitza! Erleak abarasketan bezala bizi ziren hirikoak, bata bestearen gainean eta zerua ere ikusi gabe. Eraikuntza arraro haien artean, arrantzaleek 'Kiru' ibaian erabiltzen dituzten sareak bezalako bide beltzak zeuden, eta handik motordun gurdiak zihoazten ke grisa isuriz eta soinu desatsegina eginez.

Oinez zihoazenak beti presaka zebiltzan eta ez zuten agurtu ere egiten. Nik «mixpantziko» (gure herriaren agurra) esaten nuenean aurpegi izutua edo zakarra edo mespretxuzkoa jartzen zuten eta jarraitzen zuten ibiltzen.

Zailtasunez hartzen nuen airea eta begiek negar egiten zuten hango aire txarragatik: nere buru gainean, Tematin eguzkia estaltzen, laino marroi bat zegoen, hiriaren txapel gisa. Handik ibili nintzen biraka eta dena berdina iruditzen zitzaidan: beti erai-kuntzak, beti bide beltzak, baita motordun gurdiak ere. «Non jango ote dute hemengo behiek eta ardiek? Eta non daude baratzak?», galdetzen nion nere buruari.

Bapatean eraikuntza gris haietako batera igotzeko irrika sartu zitzaidan. Eta hara joan nintzen, harrizko mendixka baten oinetara eta sarrera bat bilatzen hasi nintzen. Ezer ez! Ez zegoen



sartzerik. Baina nik gogo handiak neuzkan sartzeko eta eraikuntzaren paretzikin batetik igotzen hasi nintzen, jendearen harri-durazko begiraden aurrean, han zegoen zulo karratu batera ailegatu arte. Orduan sartzera joan nintzen eta ez dakit zer gertatu zen baina pareta ikustezen baten kontra jo nuen eta hau zatika apurtu zen nire azala zulatuz. Odolez beteta nengoen eta ur putzu bat bilatzen hasi nintzen, etxean dugun bezalako. Nere ingurua behatu nuen inoren bila. Etxebizitza oso estua zen, nahiz eta luzea eta handia izan eta ito behar nuela iruditu zitzaidan. Gainera, zati estuagotan banatzen zen. Etxea gauza arraroz beterik zegoen. Adibidez, botoi bat sakatzean, leku guztia

argiz betetzen zen eta beste bati ematean, hiritarren irudiak agertzen ziren gauzak esaten. Baina ez nuen aurkitzen ura. Pentsatzen ari nintzela emakume hiritar bat agertu zen eta oihera ozen eta beldurgarri bat bota zuen izuriturik ateraz. Ni ere harritu egin nintzen bere portaeraz eta orduan urdinez jantzita zihoazen bi gizon agertu eta, ezer esan gabe, eskuak lotu eta handik eraman ninduten.

Bi hilabete pasatu nituen gela txiki eta ilun batean, atera gabe (ez zidaten uzten). Azkenean Kuatermok agertu eta handik atera ninduten. Joaterakoan hango bati esan nion: «Zoratuta zeudete» eta berak erantzun zidan: «Kallate, puto indio». Geroztik ez nahi hara itzuli.

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUIA: 1.- Kuttuna. 2.- Bokal bikoitza. Inausteko erabiltzen den lanabesa. 3.- Etxaferu. Zaren hori. 4.- Aipatu. Aiako. 5.- Erbioa. Neptunioa. 6.- Zintzoak. Joan aditzaren adizkera. 7.- Zilarra. Atzeman. 8.- Sultanerriko buruzagia. Hitz grekoa. 9.- Alokairua.

GOITIK-BEHERA: 1.- Bete. Algerian ihardun zuen talde terrorista frantziarra. 2.- Balakua. 3.- Bokala. Zude. Kontsonante bikoitza. 4.- Esperoan. Akabo. 5.- Nazioarteko kamioietan. Umerezko kolpe. 6.- Jateko orea. Euskal Herrian ihardun zuen talde terrorista espainiarra. 7.- Har ezan! Norbait. Röntgen. 8.- Animalien eskua. 9.- Egur. Arrazoi.

N-85



Ubaba

Hurrengo hiru artikuluetan Iruñerri aldenduko gara Ameskoara joateko. Honetan *Ubaba* izeneko lekuaz arituko gara, ugaldeaz hurrengoan eta azkenik, hirugarrenean, *Urederraz*. Ezin aurrera segitu Balbino Garcia de Albizuren lana goraiatu gabe. Alde batetik Ameskoako toponimia txikia artxibategietan eta ameskoaren ahoetan maisukiro bildu dituelako, eta bestetik leerro hauek idazteagatik. Berak sinatu beharko litzuzke ondorengo hiru artikulua nere lana itzultzaile hutsarena izan baita.

Esan bezala, gaur *Ubatatik* hasiko gara. Izen hau erabat arrotza zaigu eta inork ez luke mapa baten gainean kokatuko. Ezta mendizalerik jantzienak ere. Hala ere denok ikusi dugu alderdi hori, argazkiren batean besterik ez bada ere, eta gehienok gainera han izan gara lekuaren ederra dastatzen.

Kontua, maiz gertatzen den bezala, hiritar deskubritzaleari ez zitzaiola acola bertakoek zer izen ematen zioten eta alderdi hau deskubritu zuenean izen berri bat sortzeko beharra egin zitzaiola. Arrazoi horrengatik gaur denok esaten dugu *El Nacadero del Urederra*, *Urederrako Iturbegia* edo euskaraz.

Eta izen zaharra? Gorago esan dugu *Ubaba* dela. Ameskoarrek, gaur egun, *Ubaba* esaten diote duela 525 urte bezalaxe. 1469ko agiri batean, B.Garcia de Albizuk bildua noski, *rio Ubaba* irakurtzen da. Gainerako arrietan honako aldaerak bildu ditu ikertzeile honek: *rio llamado Hubava o Hubava* (1741), *Uvaba* (1865); *Ugaba* (1509); *Ugaba* (1911); *Ubagua* (1746); *Ubagoa* (1760)...

Agiri hauetatik honako hau atera daiteke: *Ubaba* toponimoa Ameskoabarrenean beti erabiltzen dela Urederra ibaiaren sortzen den lekua izendatzeko, baita ibai bera ere izendatzeko. Ameskoako Limitazioetan gainera *Ubaba* esaten zaio iturbegiaren gaineko arraso edo soilari.

Izena, gainera, ezin deskriptiboagoa da. *Ubabak* dituen barianteen artean *Ubagoa* airkitzen zen. Hots, *U(r)-a(h)oa*, ura sortzen den lekua, hain zuzen. Bertako hizkeran *Ubaa*ahoskatua. *El Nacadero-ren* sinonimoa, bis-tan denez.

Seinalde ona litzateke, turisten artean ere, izen hau gero eta gehiago entzutea. Nafarroko toponimiaren alde egiten ari den lanak zerbaiterako balio izan duelako seinale garbia izanen litzatekeelako.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Joan den ekainean hasita, 'Mozorroberri 93' Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak antolatutako kultur zikloak urria arte iraunen du. Bertan, Nafarroako zazpi antzerki taldek euskarazko lanak pla-

zaratuko dituzte. Zikloaren bigarren edizio honetan muntaia handiko antolaketa egin dute, eta maila altuko obrak ikus daitezke. Beraz, euskaldunok badugu zer ikusi eta zer entzun heldu diren hilabeteetan.

Antzerkia, euskaraz eta Nafarroan

IRUNEA

'Mozorroberri 93' izeneko kultur programazioa antolatu du uda honetarako Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak, 'Hurbil Kultur-gaiak' izeneko enpresaren bitartez. Asmoa zuten publikoki aurkeztekoa, baina azkenean ez zuten egin, eta jende ugari ez da enteratu ere egin. Aurtengoarekin bigarren aldia da 'Mozorroberri' zikloa egiten dutela, iaz ere izan baitzen.

Nafarroako zazpi antzerki taldek plazaratuko dituzte bere obrak herrialdeko hainbat herritan, guztiak euskaraz. Emanaldiak ekainean hasi ziren, lau ekitaldiekin. Uztailean ere bat dagoeneko egin dute, baina oraindik, urriaren 30a bitartean, 27 antzezlan plazaratuko dituzte beste horrenbeste herritan. Bali-teke, antolatzaileen esanetan, gehiago izatea, oraindik eskaerak hartzen ari baitira.

Nafarroako zazpi antzerki talde hauek bederatzi obra ezberdin plazaratuko dituzte, talde batzuk bi antzeztuko dituztelako. Azkona taldea, Popi eta Zaratrako, Gus Marionetas, Iruña Pequeño Teatro, Sambhu Teatro, Teatro Ko-

llins Clown eta Trokolo taldeak dira, hain zuzen, ziklo honetan parte hartuko dutenak, eta guztiak euskaraz ariko dira.

Azkona taldea izen bereko herrian sortu zen 1980an, 1978 urtean hasitako esperientzia baten jarraipen delarik. Talde honen lanak kaleko 'teatroa-partaide-tza' deituriko antzerki motaren baitan koka daiteke. 'Kiki, Koko eta Moko pailazoak' izeneko lana aurkeztuko du, hau da, animaziozko ikuskizuna pailazoekin. Musika zuzenean erabiltzen dute, partehartzea bultzatzen duten jolasekin batera.

Popi eta Zaratrako bi pailazo dira, Iruñekoak biak, Jose Miguel eta Andoni Iribarren Imaz, 1979az geroztik elkarlanean ari direnak. 'Arratsalde bat zirkoan' da bere lana, haurrei zuzendua. Bertan, zirkoaren mundua antzerkira ekarri nahi izan dute eta truko ugari egiten dituzte.

Gus Marionetas taldea Iruñean sortu zen 1988an, eta berehala ekin zioten txotxongiloen lehen muntaia prestatzeari. Ordutik, beste batzuk egin dituzte, baita sariak irabazi ere. 'Ordainik gabeko eguna' izeneko lana plazaratuko dute, helduei zuzendutako txotxongiloak hain zuzen.



'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko antzezlan plazaratuko du Iruña Pequeño Teatro taldeak. Orain dela hamaika urte sortuak, zortzi antzerki muntaia prestatu ditu, jendearekin komunikatzeko umorea ardatz nagusia delarik. Lan hau haurrei zuzendua da. Sambhu Teatro taldeak, berriz, bi obra plazaratuko ditu: 'Bat, bi eta huts' umorezko zine mutuan oinarritzen den ikuskizun komikoa, eta 'Txap, niri bost' izeneko, haurrei zuzendutako ikuskizun komikoa. Talde hau 1982an sortu zen, eta bertako aktoreak Bartzelonako Antzerki Institutuan trebatu dira, maisu handiekin. Nazioarteko jaialdietan ere parte hartu dute behin baino gehiagotan.

Teatro Kollins Clown taldeak ere bi lan plazaratuko ditu: 'Carakollins' publiko gazte-helduarentzako pantomima komikoa, hitzik gabekoa, eta 'Birtziklaia' jende guztiarentzako pantomima komikoa. Eta azkenik, Trokolo taldeak 'Zalapartaka' antzezlan eskainiko du, publiko zabalari zuzendutako ikuskizuna. Orain dela zazpi urte sortua, talde honek haurrentzako ikuskari franko plazaratu ditu.

MOZORROBERRI 93 KULTUR ZIKLOAREN EGITARUA

Eguna	Herria	Tokia	Ordua	Taldea	Antzezlanak
Ekaina					
26	Luzaide	Herriko Plaza	11.30	Trokolo	'Zalapartaka!'
28	Atarrabia	Udal Igerilekuak	20.30	Trokolo	'Zalapartaka!'
30	Gares	Mena Plaza	12.00	Popi eta Zaratrako	'Arratsalde bat zirkoan'
Abuztua					
7	Karkar	Igerilekuetako frontoia	19.00	Kollins Clown	'Birtziklaia'
8	Lerin	Udal igerilekuak	18.00	Kollins Clown	'Birtziklaia'
14-19 ?	Arantza	Frontoia	zehazteke	Trokolo	'Zalapartaka!'
20	Arribe	Herriko Plaza	22.00	Trokolo	'Zalapartaka!'
22	Alesbes	Udal igerilekuak	20.30	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
27	Ultzama	Frontoia	21.00	Trokolo	'Zalapartaka!'
29	Ziritza	zehazteke	17.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
Iraila					
3	Azagra	Udal igerilekuak	19.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
8	Zizur Nagusia	zehazteke	zehazteke	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
11	Allo	zehazteke	19.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
12	Aburrepea	Herriko Plaza	12.00	Trokolo	'Zalapartaka!'
17	Lizarrar	zehazteke	zehazteke	Trokolo	'Zalapartaka!'
18	Uharte	zehazteke	zehazteke	Sambhu	'Txap, niri bost'
19	Ituren	Frontoia	17.00	Trokolo	'Zalapartaka!'
19	Sartaguda	Kultur Etxea	17.00	Popi eta Zaratrako	'Arratsalde bat zirkoan'
26	Irunberri	zehazteke	12.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
26	Sartaguda	Kultur Etxea	17.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
Urria					
3	Lerin	zehazteke	zehazteke	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
6	Baztana	zehazteke	zehazteke	Iruña Pequeño Teatro	'Bazter utzitako panpi...'
7	Tafalla	Kultur Etxea	zehazteke	Iruña Pequeño Teatro	'Bazter utzitako panpi...'
8	Tafalla	Kultur Etxea	zehazteke	G.U.S. Marionetas	'Ordainik gabeko eguna'
15	Antsoain	Ezkaba ikastetxea	15.00	Azkona	'Kiki, Koko eta Moko'
27	Kastejon	Kultur Etxea	zehazteke	Sambhu	'Txap, niri bost'
30	Lodosa	zehazteke	zehazteke	Sambhu	'Bi, bat eta huts'

Patxi Larrion

..... 'Larruneko' zuzendaria

Patxi Larrion 'Larrun' pentsamendu aldizkariko zuzendaria da, eta, horretaz gain, edo horrexegatik, 'Argia' astekariaren Iruñeko delegazioko langile sutsua. Ez zegoen Larruni buruz hitz egitea saihesterik, baina gehien bat Argia Nafarroan segitzen ari den sendotze bidearen inguruan aritu gara Patxi Larrunekin, barkatu, Patxi Larrionekin.

«'Argia' handituz doa»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— 'Larrun'-eko zuzendaria zarela kontuan izanik, lehenik eta behin, zein da 'Larrun' aldizkariaren egungo egoera?

PATXI LARRION.— 'Larrun' duela zortzi urte sortu zen. Euskal nazio proiektu bati buruz pentsamendu aldizkari bat egiteko xedearekin, mugarik gabeko pentsamendua, horixe izan zen hasierako helburua eta horretan dirau. Agian, azken urteotako aldaketarik nabarmenena maiztasunari dagokio, pasa den urtetik aitzina hiruhilabetekari bihurtu baita. Gisa honetan gure esparrua hobeki betetzen gurela uste baitzen. Hasieran pentsa zitekeen pentsamendu aldizkari batek ez zuela tokirik izan, baina, gaur egungo perspektibatik, hamazazpigarren zenbakia karrikatu dugun honetan bestelako irudipena dakusagu. Harpidetzak dira gure sustengu nagusia, hala ere, Argia astekariarekin gertatzen ari den moduan, gure kaleko presentzia handituz doa.

EGUNKARIA.— 'Argia'-ren Nafarroako delegazioa nabarmen sendotu da azken urtean. Zer dela eta?

LARRION.— Argiaren xedea aro berri honetan —azken hamabi urte hauetan alegia— herrialde bakoitzean delegazio bat edukitzea izan da, beste kezka batzuen artean. Nafarroan orain arte gehienbat landu izan dena zera izan da, alde batetik berriemaileak eta bestetik kolaboratzen zuen jendea. Pasa den urteko saioa —aurten ere gauzatuz joan dena— hemen delegazio bat eratzeko izan da. Berriemaileen papeira oraindik ere mantentzen da, baina ikusten zen 'Argia'-n garrantzitsua zela bertakoek hemengo gauzetaz idaztea. Lan talde bat osatu da gehienbat ikasleekin, eta tarteka-marteka historikoek ere kolaboratzen dute.



Patxi Larrion, salda guztien perejila.

Argiaren xedea aro berri honetan —azken hamabi urteotan alegia— herrialde bakoitzean delegazio bat edukitzea izandu da».

Etorkizun hurbilari begira 'Argia'-ren xedea da talde horretaz gain beste pertsonaren bat dedikazio gehiagorekin aritzea Nafarroan. Horrek ez luke soil-soilik kazetari lanak eginen, promozioak ere eginen lituzke, eta as-

tekari batek sortzen dituen lan guzti horiek landuko lituzke.

EGUNKARIA.— Sarritan euskal komunikabideei zentralistegiak izatea leporatu zaie. Gaingidu al du 'Argia'-k zentralismo hori?

LARRION.— Euskal kultur gintzan anitzetan aipatzen da zentralismo hori. Nire ustez hori existitu existitzen da, baina gure astekariaren ahalegina beti izan da horrek apurtzea, eta Nafarroan egiten ari den lana horren lekukoa da. Nik ez dut esan lortu dugun ala ez. Arazo hori, arlo honetan ezezik beste arlo askotan ere gertatzen dela uste dut. Hasiera-hasieratik kezka bat izan dugu, zentralismo hori gaingitza hain zuzen ere. 'Argia' han-

Aiaren ahalegina beti izandu da zentralismoarekin apurtzea. Nafarroan egiten ari den lana horren lekukoa da».

dituz doa. Bilbon delegazio sendo bat edukitzea lortu dugu, Iparraldean beste bat dugu, eta ez bakarrik kazetaritza mailan mugitzen dena, eta Nafarroan ari gara. Nire ustez delegazio hori dagoeneko sortu dugu. Bestalde,

Gasteizen ere badago beste talde bat delegazioa sortu nahian dabilzana.

EGUNKARIA.— Harpidetza eta irakurle kontuetan, zein da 'Argia'-ren osasun egoera Nafarroan?

LARRION.— Poliki-poliki irakurle eta harpidetza kopurua handituz doa. Presentzia, nire ustez, gero eta nabarmenagoa da. Harpidetzak lantzeaz gain, 'Argia'-k —Nafarroan ezezik Euskal Herri osoan ere— oso ahalegin inportantea egin du azken bi urte hauetan bere kaleko presentzia handitzeko. Kioskoetan eta gainontzekoetan presentzia bermatu nahi izan da, eta horretarako hainbat produktu berri kaleratu da, esate baterako, denborapasak edota ateratzen diren gehigarriak. Horretaz gain, irrati eta egunkarietan publizitatea egiten da horien inguruan, eta garrantzitsua da hori. Ahalegin izugarria izan da. Etekinak agian ez dira epe laburrean somatuko baina bai, ordea, epe luzera. Gainera, dagoeneko somatzen hasi gara egun gure kale presentzia garrantzitsua dela. Bestalde, harpidetza kopurua pixkanaka-pixkanaka handituz doala esan daiteke, eta horretan asko lagundu du harpidedunek gero eta lehenago jasotzen dutela asteroko alea.

EGUNKARIA.— Azken galdera pertsonalagoa izan da. 'Larrun'-eko zuzendaria, Argiako Nafarroako delegazioko langile sutsua, 'Napartheid'-en ibilia, Geronimo de Ustarizeko saltsan, GITEzalea, azken finean, saltsa guztietako perrexila. Nondik ateratzen duzu guzti horretan aritzeko behar den astia?

LARRION.— Hori ez dut erranen, nik ere ez baitakit. Denbora gehiena 'Larrun'-en eta 'Argia'-n ematen dut, baina batzuetan gauza guzti horiek elkarlotuta daude, nolabait erlazionaturik daude, eta ematen duena baino errazagoa da.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

